

Inguxetian lau zibil hil dira gerrillarien aurkako operazio batean

Gerrillarien eta Errusiako segurtasun indarren arteko borroketan harrapatuta hil dira lau lagunak

Erredakzioa

Gerrillarien eta Errusiako segurtasun indarren arteko tiroketa batean lau zibil hil ziren atzo, Inguxetiako ekialdean. Sunzhenski barrutian, Ashti eta Datij herrien artean Txetxeniako gerrillarien aurka operazio berezia hasi zuten segurtasun indarrek, herenegun. Erasoan hogeit hamar gerrillari hil zituztela jakinarazi zuten iturri ofizialek operazioa hasi berri; atzo, baina, hamalauen gorputak bakarrik aurkitu zituztela onartu zuten. Borrokan gunean, baina, hainbat zibil su gurutzatuak harrapatuta hil zirela adierazi zuten. Aurrez aurrekoak hasi zirenean, Kaloi Azhilgov Txetxeniako presidentetzaren eledunak azaldu duenez, 70 bat lagun handik ateratzeko agindu zieten; lauk, baina, ez zuten lortu.

Dresdeko bonbardaketen urteurrenean liskarrak izan dira Alemanian

Bigarren Mundu Gerran Erresuma Batuko 245 hegazkinen Saxoniako hiria suntsitu zuten

Erredakzioa

Bigarren Mundu Gerrako eraso bortitzenetakoa izan zen Dresdeko bonbardaketa (Saxonia, Alemania). Atzoko egunez, duela 65 urte Erresuma Batuko 245 gerra hegazkinen hiria suntsitu zuten. Erasoan hildako lagunen kopuru zehatza ezaguna ez den arren, zenbaitek 25.000 eta 40.000 lagunenean artean hil zirela diote.

Bonbardaketak gogoratzeke egindako ekitaldi ofizialean 10.000 bat lagunek bakearen aldeko manifestazioa egin zuten. Baina, urterto bezala, mila neonazi inguru elkartzu ziren Dresden; ezkerreko hainbat manifestarik, ordea, manifestatzea galarazi zieten, eta liskarrak sortu ziren.



URTI LURRITOKOETXEA

Sergei Xamba > Abkhaziako lehen ministroa

Errusiak anexionatu dituela ukatzen du Xambak, eta, urte luzetan estatu izateko borrokatu ondoren, euren garapen ekonomian pentsatzeko ordua iritsi dela uste du.

«Ez dugu sekula onartuko Georgiako zati izatea»

Urti Urritokotxea Sukhum

Atzo arte Abkhaziako gobernu independentistako Atzerri ministro izandakoa, Sergei Xamba, Kaukasoko herrialde horretako lehen ministro izango da aurrerantzean. Sukhum hiriburuko bulegoan hartu du BERRIA. **Abkhazia ospakizun giroan ikusi dugu, arazo ugari egon arren. Gobernu berria dago, eta bizpahiru estatu aitortu dute estatu independente gisa. Egongo da gehiagorik?**

Herrialdearen demokratizazioa aurrera doa, hauteskunde garbiak izan ditugula ondorioztatuta dute hainbat herrialdeetatik etorritako begiraleek. Sergei Bagapsh presidente hautatu dute berriz ere; ez da duela bost urteko zalapartarik egon —Kremliniek babestutako hautagaiari gailendu zitzaion Bagapsh orduan—. Estatu gisa aitortpena lortzeko borrokatu gara urteetan, eta dagoe-neko Errusiak, Nikaraguak, Venezuelak eta Nauruk aitortu gaituzte. Baina garrantzitsua eskualdean harreman ona izatea da, Turkiarekin eta Europako Batasunarekin. Herrialde batzuekin elkarlana oso zaila da, Ameriketako Estatu Batuen Georgiarekiko harremana itsu-itsuan jarraitzen dutelako, aintzat hartu

gabe gure borroka bidezkoa dela. Stalinek erabaki zuen Abkhazia Georgian sartzea, eta hori bera bultzatzen dute AEBek eta EBK. **«200 urte Errusiarekin» dioten afixak ikusi ditugu kaleetan, 1810ean Abkhaziak tsarren inperioarekin bat egin zuela gogoratuz. Ez duzu uste horrek arrazoi ematen diola Georgiari, Errusiak anexionatu egin zaitzuten dioenean?**

Errusiak lurralde hau bere gain hartu balu anexioa izango zen, baina ez da hori gertatu. Abkhaziak beti independentzia eskatu du, onartu egin gaituzte, argi dago ez gaituela Errusiak anexionatu. Egia da gure lurraldean Errusiako base militar bat dagoela, gure borondatez. Hori bada anexioa dela esateko aitzakia, Europa erdia AEBek anexionatuta daukatela esan beharko genuke, Espainia horien artean.

Errusiaren Kosovozarete?

Abkhaziak Kosovok baino eskubide handiagoa du independente izateko, kasu bakoitza berezia bada ere. Sobietar Batasuneko Konstituzioak onartzen zigan independentezia eskubidea; Kosovori ez zion halakorik aitortzen Jugoslaviakoak. Horrez gain, guk geuk defendatu eta askatu genuen gure lurraldea, geuk eratu genuen gure estatua, sortu geni-

tuen erakundeak. Kosovon, aldiz, NATOk egin zuen gerra, eta Nazio Batuen Erakundeak sortu zituen erakundeak. Bestalde, guk lehen ere izan dugu estatua, eta Kaukasoko indartsuena izan da. Kosovo beretzat aldarrikatzen dute albaniarrek eta serbiarrek, baina ez da inoiz estatua izan.

Kosovok NATO behar du bizirik irauteko, baina zuek ere bai Errusia.

Errusia barik bizi izan ginen 1993tik; Errusiak berak ezarri zigan blokeoa. Egia da blokeoaren jarraitu izan balu zailagoa izango zela, baina une zail larrietan ere aurrera egiteko gai girela erakutsi genuen. Eta hori guztia Abkhazia txiki-txiki eginda geratu zen gerraren ostean. Gure indarrez aurrera egitea lortu dugu. Azken urte eta erdian aukera ugari ireki zaizkigu, eta, beraz, beste fase batean gaude, garapenean maila bat gorago.

Kaukasok askok galdetzen dute: zergatik Abkhazia bai eta Txetxenia ez?

Txetxeniak independentziarako eskubidea dauka, noski, baina egungo aginteak ez du horrelakorik eskatzen. Egon zen helburu hori zeukan agintea, baina bere gain hartu eta defendi dezakeenak izan dezake independentzia. Eta Txetxeniak ez zuten indepen-

dentzia horri eusten jakin izan, herritarren babesa ez zelako horren handia.

Eta Euskal Herria?

Txetxeniak independentziarako prozesua hasi zenean, Abkhazia baino ez zen egon haren alde. Protesta egin genuen Grozniren suntsiketaren aurka, gure presidentek gutuna idatzi zion Jeltsini. Zure galderara itzulita: independentzia lortzeko, borondate argia izan behar da, eta horri eutsi eta defendatzeko baliabideak. Guk, dena aurka izan arren, erakutsi dugu gure ideia defendatzeko gai garela eta azken muturreraino eramateko prest gaudela. Zergatik? Gizarte osoa zegoelako horren alde, ez abkhaziarrak soilik, baita lurralde honetako beste herriak ere, georgiarrak ez beste guztiak, hau da, armeniarrek, errusiarrak, greziarrak eta abar. **Zertan dira Genevako bake elkarrizketak? Europak badauka rolik gatazkaren konponketan?**

Orain bertan Genevan daukagu Georgiarekiko elkarrizketa bide bakarra. Dmitri Medvedev eta Nicolas Sarkozyk 2008an lortutako akordioaren ondorio da. Sei puntuetako batek aldean negoziatzeko bultzatzen zuen. Egonkortasuna eta segurtasuna dira elkarrizketa horietako gai nagusia, eta benetako interesa daukagu, gatazkaren aurka baikaude. Georgiarekin harreman ona nahi dugu, baina auzo gisa, bakean bizi behar dugula ulertuta. Baina Georgiaren menpe egoteko egindako ahalagin oro hutsala da.

Eta ez dago harremana hobetzeko aukerarik?

Georgiarekin auzo gisa harreman ona izateaz bakarrik hitz egin dezakegu. Sobietar Batasunarekin harreman ona izan zuten garaian, perestroikarekin estatus federala proposatu, eta Tbilisik armada bidali zigan. Gerra osteko bake elkarrizketetan konfederazioa onartu genuen, baina Georgiak berriz ezetz esan eta eraso egin zigan atzera ere. Alternatiba bakarra independentzia aldarrikatzea zen, eta gure estatua eraiki dugu, blokeo izugarria eta gerraostea gaindituta. Orain inoiz baino irmoago diogu ez dugula sekula onartuko Georgiako zati izatea. Ez dugu indarrik galduko horretaz eztabaidan. Munduari erakutsi diogu garapen arrakastatsua izan dezakegula, ez ekonomikoki soilik. Georgiaren alde daudenek ere onartzen dituzte Abkhaziaren lortpen demokratikoak. Orain Errusiak bermatzen digu segurtasuna, eta garapen ekonomikoan pentsatzeko ordua da.

Zertan eragingo dute 2014ko Soxtiko Neguko Olinpiar Jokoek Abkhazian?

Ekonomikoki interes handia daukagu. Eraikuntzarako beharrezko materialak hemen daude, eta bi hirien arteko komunikazioa hobetzeko egitasmoa daukagu, Kaukaso osoko aireportu seguruena erabiliz bidenabar.